

**Bergarako XAXAU Konpartsa eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena, 2021ean Bergarako San Martin jaiei dagozkien datetan hainbat kultura ekitaldi kudeatzeko betebeharrak jasotzen dituen**

**Bergaran bi mila eta hogeita bateko irailaren hamarrean**

**BILDURIK**

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Bergarako San Martin Plaza 1-ean egoitza izan eta P-2007900-J I.F.K eta erakunde horren ordezkaria dena, M<sup>a</sup> Concepción Ugalde Izeta Udaleko idazkariaren laguntzarekin.

Bestetik, Iosu Agirre Gurrutxaga 72.492.532-M NAN zenbakia duena, G-75084921 IFK izan eta Errotalde jauregia z/g – 20570 Bergara (Gipuzkoa) egoitza duen XAXAU KONPARTSAREN ordezkartzan.

Azken honek zinpean Alkatearen aurrean aitortu ondoren bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela 38/2003 Legeko 13.artikuluko 2 eta 3 idatz zatietan aurreikusitako debeku kasuetan, diru laguntzak jasotzeko elkarri hitzarmen hau sinatzeko ahalmena aitortu eta

**ADIERAZI DUTE**

1. XAXAU KONPARTSAk 2021ean Bergarako San Martin jaiei dagozkien datetarako San Martin plazan txosna eta terrazak jarri eta hainbat kultura ekitaldi antolatzeke proposamena egin diola Bergarako Udalari, ikusirik gaur egun bizi dugun osasun egoera dela-eta ohiko jairik ezingo dela ospatu.
2. Hori dela-eta proposamen bat luzatu dio Udalari eta ados egonez gero egitarau hori aurrera eramateko Udalari laguntza eskatu dio.
3. Bergarako Udalak positiboki baloratzen du egitarau hori, eta Udalak egin behar izango lukeen antolaketa XAXAU Konpartsak planteatu duenarekin ordezkatzeko aukera ikusi du.
4. Alkateak, dekretuz, 2021eko irailaren 9an erabaki duela, 18.505,5€-ko dirulaguntza ematea, eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

 Beraz, honako hitzarmen hau egitea erabaki dute, ondorengoak izanik

**KLAUSULAK**


**Lehenak.-** XAXAU Konpartsak 2021eko irailaren 15etik 18rako San Martin plazan egiteko aurkeztu duen egitaraua aurrera eramateko konpromisoa hartzen du. Egitaraua honakoa da:



| EGUNA                 | ORDUA | EKITALDIA                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|-----------------------|-------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| IRAILAK 15 ASTEAZKENA | 18:00 | Txosna irekiera                                                                                                                                                                                                                                                           |
|                       | 20:00 | Nikotina taldea                                                                                                                                                                                                                                                           |
| IRAILAK 16 OSTEGUNA   | 13:00 | Jurgi Ekiza                                                                                                                                                                                                                                                               |
|                       | 17:00 | Niala magoa                                                                                                                                                                                                                                                               |
|                       | 20:00 | Kontzertua: Sukena akustikoan                                                                                                                                                                                                                                             |
|                       | 22:00 | Kontzertua: Mila modu                                                                                                                                                                                                                                                     |
| IRAILAK 17 OSTIRALA   | 17:00 | Txil mojito festa                                                                                                                                                                                                                                                         |
|                       | 17:30 | Katarsia/Udazken/June Odriozola                                                                                                                                                                                                                                           |
|                       | 22:00 | Skabidean                                                                                                                                                                                                                                                                 |
| IRAILAK 18 LARUNBATA  | 12:00 | Irekiera + marianito festa                                                                                                                                                                                                                                                |
|                       | 13:00 | No name: tiriti!                                                                                                                                                                                                                                                          |
|                       | 14:30 | Txomingero bazkaixa (eremuan prestatutako mahaietan 114 pertsonarentzako gehieneko aforoarekin -mahai bakoitzean gehieneko 6 pertsona-, eta bakoitzak bere bazkaria eramanez).<br>Zenbakien jokoa (irabazi asmorik gabeko jokoa izango da; tartean dirurik ez da egongo). |
|                       | 20:00 | Toc taldea                                                                                                                                                                                                                                                                |
|                       | 22:00 | Kontzertua: Ibil bedi                                                                                                                                                                                                                                                     |

Eta aurrekontua, berriz, honokoa:

| Aurrekontua                            |            |
|----------------------------------------|------------|
| Ekintza                                | €          |
| Nikotina                               | 1.300,00 € |
| Jurgi Ekiza                            | 500,00 €   |
| Niala Magoa                            | 500,00 €   |
| Sukena                                 | 500,00 €   |
| Mila modu                              | 1.200,00 € |
| June Odriozola+Udazken taldea+Katarsia | 1.000,00 € |
| Skabidean                              | 3.200,00 € |
| No name Tiriti                         | 600,00 €   |







Begarako  
Udala

|                                                  |                  |
|--------------------------------------------------|------------------|
| Ibil bedi                                        | 1.815,00 €       |
| Toc                                              | 800,00 €         |
| Rsound                                           | 5.505,50 €       |
| Bestelako gastuak (taldeen afariak, materiala... | 1.585,00 €       |
| <b>Guztira</b>                                   | <b>18.505,5€</b> |

**Bigarrena.-** Bergarako Udalak goian zehaztutako ekitaldiak aurrera eramateko ondorengo betebeharrak hartuko ditu bere gain:

- a) Irailaren 13 goizean jartzeko txosna alokatuko du. San Martin plazan jarriko da, Banco Guipuzcoano-ko fatxadaren kontra, planoan zehazten den eran. Irailaren 20 goizean jasoko dute txosna. Horren kostua beregain hartuko du Udalak.
- b) Udal brigadako langileek txosnarako ur eta argindar hartuneak prestatuko dituzte, bakoitzeko 2 hartune.
- c) Udalak 2 komun alokatuko ditu eremu barruan jartzeko. Horren kostua beregain hartuko du Udalak.
- d) Udaleko langileek San Martin plazara eramango dituzte irailaren 15ean 13:00etarako:
  - Hesiak eremua ixteko.
  - 19 mahai
  - 114 aulki
  - Gel hidroalkoholikoa eta dispensadoreak
  - Desinfektanteak eta trpuak mahaiak garbitzeko
  - FPP2 motako musukoak lanean arituko diren Xaxauko kideentzat eta zerbitzari lanetan arituko direnentzat.
- e) Udaleko Vivaro edo Traffic furgoneta irailaren 14an 15:00ak ondoren 20:00ak arte Xaxaukoen esku uztea beraien materiala txosnara eramateko.
- f) Udalak Seminarioko aldean 10 x 5 neurriko karpa muntatuko du, eta barruan 8x4 neurriko eszenatokia. Eszenatokian foko 1 egongo da argi generala emango duena eta koadrotik piztuko dena.
- g) Udalak Xaxau konpartsakoen eskura utziko ditu 5x5 neurriko 2 karpa eta 3x3 neurriko 7 karpa Udaletxeko portaloian, euria eginez gero erabilgarri izateko.
- h) Irailaren 18an Udaleko Vivaro edo Traffic furgoneta Arruriagako udal biltegian Xaxaukoentzat erabilgarri uztea aulkiak eta mahaiak Tremefil-eko biltegira erretiratzeko. Arruriagako udal biltegia irekitzeko udaltzainetara joan beharko dira Xaxaukoak.
- i) Irailaren 15etik 18ra bitartean Komenio kalean pare bat furgoneta aparkatzeko tokia erreserbatzea. Egun bakoitzeko kontzertua baino 2 ordu lehenagorako.
- j) Udala arduratuko da SGAEkin dauden betebeharrak kudeatzeaz, eta ordainketarik balego, ordaintzeaz.
- k) Seminarixoko aldagelak taldeentzat erabilgarri uztea.
- l) Udala arduratuko da:
  - Kultura ekitaldietarako argindarra kudeatzeaz: 12 Kw.
    - Konexioa: Irailak 15ean 16:00etan
    - Deskonexioa: Irailak 18an 00:30etan



- Txosnarako argindarra kudeatzeaz: 9 kw.
  - Konexioa: Irailak 14an 14:00etan
  - Deskonexioa: Irailak 19an 14:00etan

**Hirugarrena.-** Xaxau Konpartsak ondorengo betebeharrak hartuko ditu bere gain aipatutako ekitaldiak aurrera eramateko:

- a) Eremua egokitzea, mahaiak eta aulkiak egoki antolatuz eta ingurunea hesituz, Udalak pasatutako planoaren arabera.
- b) San Martin plazan kultura ekitaldietarako egokitutako eremuan aforoa kontrolatzea, eta baimendutako aforoa errespetatzea.
- c) Covid-a dela eta indarrean dagoen araudia ezagutzen duela, eta hori betetzeko konpromisoa hartzen du Xaxau Konpartsak.
- d) Covid-aren kontingentzia planetan aurreikusitakoa betearaztea (gel hidroalkoholikoa sarreran, jendearen arteko distantzia eremuan, musukoaren erabileraren zaintza, erabilera bakoitzaren ondoren mahaiak desinfektatzea...)
- e) Irailaren 18an Udaleko arranpadun kamioneta izango dute Arruriagako udal biltegian, ekitaldiak bukatzen dituztenean mahaiak eta aulkiak jaso eta Tremefil-eko biltegia eramateko. Arruriagako biltegia (arranpadun kamioneta hartzeko) eta Tremefileko biltegia (materiala deskargatzeko) irekitzeko udaltzainetara joan beharko dute. Karpak udaletxeko portaloira jasoko dituzte. Hesiak Seminarioko arkupetan utziko dituzte batuta.
- f) Bergarako Udala jakinaren gainean jartzea baldin eta Udalak diru-laguntza egiten duen jarduerarentzat beste laguntzarik edo ekarpenik lortuz gero, betiere, azken zatia ordaindu baino lehen.
- g) Adin txikikoei alkohola ateratzeko debekua errespetatu eta betetzea. Horrez gain, txosnagunean ezingo da tabakorik saldu.
- h) Sare sozialen edo bestelako euskarrien bidez ekitaldien zabalpena egitean edo ekitaldiak aurrera eramateko gunean zein bestelako edozein eremutan antolatzaileek ez dute pertsona/talderik irainduko duen kartelik/irudirik jarriko, ezta bestelako adierazpen iraingarriarik egingo ere. Era berean, ez da irudi/esaldi matxistarik duen kartelik jarriko edo beste adierazpenik egingo. Ekitaldien zabalpena egitean Udalerriko hizkuntzaren erabilera irizpideak jarraituko dira, eta euskarak derrigorrezko presentzia nabarmena izan beharko du eta nabarmen lehenetsiko da gainerako hizkuntzen aurrean.
- i) Gutxienez lau urtez gordetzea jasotako diruari eman zaion erabilera agertzen duten agiri originalak. Epe horretan, Bergarako Udalak horrela erabakiz gero, dokumentu horiek aztertu ahal izango ditu.
- j) Hirugarrenei egindako kalteei erantzutea, eta horretarako erantzukizun zibileko poliza kontratatzea gutxienez 240.404,94 €ko kapital aseguruarekin. Aseguru hori kontratatuta duela egiaztatu beharko du 2021eko irailaren 15a baino lehen.
- k) Hitzarmen honetan Udalarenak bezala espresuki jasotzen ez diren betebeharrak denak XAXAU konpartsak bere gain hartzea.

**Laugarrena.-** Bergarako Udalak lehenengo puntuan aipatutako egitaraua burutzeko 18.505,5€-ko diru-laguntza ere emateko konpromisoa hartzen du.

1. Diru-laguntzaren 1. zatia (11.103,3€, diru-laguntzaren %60a) ordainduko da betebeharrak fiskaltan eta gizarte segurantzakoetan egunean dagoela egiaztatu eta bi aldeek hitzarmen hau sinatu ondoren. Egunean dagoela egiaztatzeko ahalmena ematen dio elkarteak udalari.





Bergarako  
Udala

2. Bigarren zatia, (7.402,2€, %40), jasotzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu XAXAU Konpartsak:

- Emaizta ekonomikoaren memoria, hau da, zerrenda sailkatu bat, jardueraren gastuak eta inbertsioak jaso eta bertan zehaztu beharko dira hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, horrelakorik balego, ordainketa-data; eta bertan, era berean, zehaztu egin beharko dira diruz lagundu den jarduera hori finantzatzeko izan dituzten beste diru-sarrera edo diru-laguntzak, adierazita bakoitza zenbatekoa izan den eta nondik etorri den. Memoria erreala dela adierazten duen zinpeko aitorpena gehituko zaio, elkarteko ordezkariak sinatuta.
- Faktura, agiri edo erreziboen kopia eta horien ordainketa agirienak ere bai.
- Jasotako beste diru-laguntzen agiriak edo, diru-laguntzarik jaso ez bada, zinpeko aitorpena.
- Programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak, etab.).

**Bostgarrena.-** XAXAU Konpartsak egitarauaren gainean egindako publizitatean (kartelak, esku programak....) Bergarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du, tamaina ikusgarri batetan, XAXAU logoaren alboan eta adierazita laguntzailea dela. Betebehar hau ez bada betetzen, 4. puntuan jasotako diru-laguntza automatikoki %5ean murriztuta geratuko da.

**Seigarrena.-** Bergarako Udalak XAXAU Konpartsari emango dion 18.505,5€-ko diru-laguntza horren barne daude egitaraua aurrera eramateko beharrezkoak diren gastu guztiak, besteak beste ondorengoak:

- XAXAU Konpartsak ekitaldi hauetarako kontratatu dezakeen pertsonal teknikoaren lansariak, gizarte segurantzako gastuak, eta baita horien dietak eta alojamendu gastuak ere, horrelakorik egonez gero.
- Ikuskizunerako beharrezko diren pertsonalaren eta materialen garraio gastuak.
- Ikuskizunak aurrera eramateko beharrezko diren elementu guztiak.
- Ikuskizunak aurrera eramateko beharrezko diren erantzukizun zibileko polizak, gutxienez 240.404,94€ko kapital aseguruarekin.
- Ikuskizun horiek kontratatu eta aurrera eramateak eragindako gastu eta koste guztiak.
- Sortu daitezkeen beste hainbat gestio edo gastu.

**Zazpigarrena.-** Irailaren 19tik kontatzen hasita, gehienez ere bi hilabeteko epean, lagundutako jardueren balorazioa eta laugarren puntuan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko ditu XAXAU Konpartsak.

Txosten ekonomikoan justifikatutako gastua emandako diru ekarpena baino txikiagoa balitz, Udalak zati bat itzultzea eskatu ahal izango dio. Txosten ekonomiko horretan XAXAU Konpartsak egitarau honetarako izandako bestelako diru-sarrerak ere agertu beharko dira. Beraz, baliabide propioekin lortutako diruarekin eta Udalak edota beste entitate batzuk emandako diru-ekarpenarekin XAXAU Konpartsak gastua baino diru sarrera handiagoa lortuko balu Udalak eskubidea izango du era berean diru-ekarpen osoa edo zati bat itzultzea eskatzeko, edo diru-

13

ekarpenaren bigarren zatia eman gabe utzi edo partzialki emateko. Dena dela, gastua aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa izan bada, Udalak ez du diru-ekarpen berririk egingo. Udalak XAXAU Konpartsari egindako diru-ekarpen osoa edo zati bat itzuli beharra dagoela erabakiko balu, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

**Zortzigarrena.-** Udalak egingo duen diru-ekarpenaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke, eta Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoan sarreretan azaldu beharko da.

Hala eta guztiz ere, diru-ekarpenak (Udalarenak berak edo beste batzuenak batuta) eta/edo bestelako sarrerak batuta ezingo du inola ere altuagoa izan.

**Bederatzigarrena.-** Diru-ekarpena egiteko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz, edo Udalarenaz gain beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua aldatzea.

**Hamargarrena.-** Diru-ekarpena berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-ekarpenak bete beharreko baldintzak bete gabe gelditzea.
- b) Diru-ekarpena erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

**Hamaikagarrena. -** Kontratu honetan aurreikusita ez dagoen guztia, diru-ekarpenak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, lege hori garatzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa eta Bergarako aurrekontuetako udal araua aplikatuko dira.

**Hamahirugarrena.-** XAXAU konpartsak hitzarmen honen garapenerako antolatutako edo egindakoetan kalteen erantzule XAXAU konpartsa bera izango da eta Bergarako Udala kanpo gelditzen dela aitortzen dute bi aldeek.

**Hamalagarrena.-** Alde bietako batek honako hitzarmen honetan harturiko betebeharretako edozein beteko ez balu, beste aldeak hautsi ahal izango luke, eta kalte-ordainak eskatu.

Eta adostasun frogagisa, bi aldeek dokumentu hau sinatzen dute goian aipatutako egun eta lekuan nik, idazkariak, guztia egiaztatzen dudalarik.

IDAZKARIA  
M<sup>a</sup> Concepción Ugalde Izeta

BERGARAKO ALKATEA  
Gorka Artola Alberdi

XAXAU Konpartsa  
Iosu Agirre Gurrutxaga